

# DIRU SARRERAK

Proiektua aurrera eramateko eta Étagère-ren ekoizpena bultzatzeko, ezinbestekoa da diru sarrera batzuk edukitzea. Hasierako diru sarrerak bi aldetatik etorriko dira. Proiektua garatzeko eta gure produktuari hasiera emateko, 3.000€-ko kapitala jarriko dugu, ongi atera dadin eta aurrera jarraitzeko asmoz, bakoitzak 750€ inbertituko ditugu. Bestetik, hasiera batean Laboral Kutxa bankuari 9.439,91€ eskatuko dizkiogu mailegu gisa, %6-ko interesekin. Ondoren, hilero, 549.70€-ko ordainketa egiten joango gara. Azkenean, 18 hilabeteren ondoren, haiek utzitako diru guztia itzuli arte. Kontuan hartu behar dugu gastu handiak izango ditugula: lokal baten alokairua, wifi-a, elektrizitatea, telefonoa, web orria...

Gure produktua ekoizteak, hau da, Étagèreren ekoizpenak 15-20€ inguru balio du. 29,99€-an salduko dugunez, bakoitza saltzean 10-15€ inguruko etekinak aterako ditugula aurreikusi dezakegu.

Proiektu honen errentagarritasuna kalkulatu dugu, alegia zenbat unitate saldu behar diren kostu finkoak estaltzeko. Beraz, irabaziak lortzen hasteko, 450 unitate saldu beharko ditula aurreikusi dugu.

